

VERDAD CONTROVERTIDA. MEMORIAS

Hans Küng


Trotta [alemanezko jatorrizkoa 2007], 764 or.

Madril, 2008

Teologia ez dago modan. Eta Teologia diogunean, diziplina akademiko bati buruz ari gara, gutxi gorabehera Filosofiaren parekoa izan daitekeen horretaz. Hain dago bere antzinako nagusitasun hartatik eroria ezen, hemen, Euskal Herrian, badirudien gutako gehienentzat existitu ere ez dela egiten, non eta, berriz diogu, gure Euskal Herri honetan, non eta, ez gara aspertuko azpimarratzen, Eliza Katolikoaren eragina mendez mende guztiz erabatekoa izan den duela hiruzpalau hamarkadara arte. Ahaztu egiten zaigu, nonbait, Euskal Herria Europa mailan historikoki diferentziatu eta ezaugarritu duten fenomenoaren artean kristauserlijioaren eta elizaren itzal izugarria izan dela, ziur aski, iraunkorrena eta garrantzitsuena, hizkuntza alde batera utzita. Euskal Herria Eliza Katolikoak munduan izan duen feudo gotorrenetakoa izan da, horretan ez da dudarik, baina, ziur aski, leku gutxi egongo da erakunde horren beherakada hemen baino latzagoa, bat-batekoagoa eta indartsuagoa izan denik. Hori da, hain zuzen ere, liburu honen irakurketari ekitean kontuan hartu beharreko lehen oharra.

Zeren liburu hau, funtsean, Eliza Katolikoaren dekadentziari buruzko hausnarketa bat da, nahiz eta, formalki, teologo kristau baten oroitzapenen bigarren tomo gisa aurkeztu¹.

Teologo hori ziur aski publiko zabal xamar batentzat ezaguna den kristauteologo bakarrenetakoa da, alde batera uzten baditugu Ignacio Ellakuria (1930-1989) edo Jon Sobrino (1938-) jesuita euskaldunak, biak nazioarteko proiektio nabarmena izan dutenak, besteak beste lehenaren hilketaren ondorioz, baina kasu berezi bi horiez gain, esango nuke Joseph Ratzingerengana jo beharko genukeela teologo baten izena aipatzean gure artean erabateko ezezagutza ez aurkitzeko. Eta Ratzinger, hots, Benedikto XVI. Aita Santua aipatzea, testuinguru honetan ez da batere arrotza. Azalduko dugu zergatik.



1. irudia: *Verdad controvertida. Memorias* argitalpenaren azala.

Hans Küng-en Teologia eta pentsamendua estu-estu lotuta dago Vatikanoko II. Kontzilioari. Hain juxtu ere, Küng,

1. Lehen tomoa: KUNG, H. *Libertad conquistada. Memorias*, Madrid: Trotta, 2007 [alemanezko jatorrizkoa 2002].

gazte-gaztetxea izan arren, kontzilio horretako *ideologo* nagusietakoa izan zen, J. Ratzinger bezala. Orduan biak lagun handiak ziren eta sintonia berean mugitzen ziren. Hain zuzen ere kontzilio horretaz hausnartzeari dedikatu zion Küng-ek bere memorien lehen tomoa, guztiz tonu positiboan idatzia: bi mende progresoari eta modernitateari ukorik biribilena egiten pasatu ondoren, Eliza Katolikoak zezenari adarretatik heltzea eta erreforma zabal eta sakonei ekitea erabaki zuen, Kontzilio Ekumenikoa deituz. Esperantzazko aro bat Küng bezalako kristau progresista batentzat. Beraz, teologo horren memorien lehen tomoa Kontzilioaren kronika bat da neurri handi batean, haren jatorria eta bilakaera azalduz.

Baina usteak erdiak ustel. Bigarren tomo hau Küng-en alegato eta akusazio gogor bat izango da. Noren kontra? Hain zuzen ere Kontzilioa *traizionatu* duten guztien kontra, Eliza hondamendira eramanez. Zeren Küng-en ustez garbi baino garbiago dago Eliza Katoliko krisialdi sakon batean sartuta dagoela azken hiruzpalau hamarkadetan. Horraino uste dut denok bat etorriko garela, aski da-eta gure hurbileko esperientzian pentsatzea. Baina Küng-en ustez krisialdi horrek azalpide zehatz bat du: Kontzilioak hasitako bideari muzin egitean Elizak bere burua hondatu du, sakonki hondatu ere. Eta puntu horretan irakurleak galderarikurra zabaldu beharko luke, eta galde-tu: egia ote? Baina alegatoa ez da horretan gelditzen, zeren eta ahalegin eskergarri eta ohoragarri batean itzulituruka galdu beharrean Küng-ek zehatz-mehatz seinalatzen ditu *traizio* horren arduradun intelektual eta faktikoak: lehenengo eta behin Erromako Kuria (hots, Vatikanoko aparatua administratibo-klerikala), hasiera-hasieratik

Kontzilioa boikoteatzera deliberatua; ondoren Paulo VI. Aita Santu dudati eta ahula; hirugarren Joan Paulo II.a Aita Santu eskuindar eta ezjakina; eta azkenik baina ez azkena, Erromako aparatua klerikalaren aurrean kapitulatu eta beren jatorrizko ideiei muzin egin dieten apezpiku eta teologo aurrerazaleen saldoa, hots, bere gaztetako lagun ugari, ororen buru, Joseph Ratzinger, Benedikto XVI.a. Eta puntu honetan irakurleak berriz ere galdetu behar du: egia ote?

Gorago seinalatu dugun bezala, ni-re ustez liburuaren balio handienetakoa da Küng-en arrazoibideen garden-tasuna: ez da beldur izenak emateko, gertakariak jasotzeko eta iritzi zehatzak aurkezteko. Hau ez dabil adarretatik. Ratzinger-ekin izandako harremanak, adibidez, xehetasun eta zehaztasun osoz kontatuta daude, urruneko neutritasun baterako inolako tarterik utzi gabe. Berdin Alemaniako apezpikuekin eta beste hainbat teologorekin, adibidez, Karl Rahner, Kontzilioioko izar dizizarienetakoa, Küng-en ustez zenbait kontu zehaztetan aski ausarta izan ez zena (hitz batean, dezepzio bat).

Tesi nagusiak bestalde, argi formulatuta daude: Kontzilioa bukatu bezain laster Paulo VI.ak errakuntza serie absurdu bezain kaltegarri bati ekiten dio: sektore atzerakoien indarrak kikilduta, edo sendotasun intelektuala-ren faltaz, edo bere izaera zalantzako-rrarengatik, amore ematen hasten da. Errakuntzarik handienak apaizei ez-kontzeko debekua berrestea (*Sacerdotalis caelibatus*, 1967ko ekaina) eta, bereziki, metodo antikontzeptibo guztiguztien debekua izan ziren, hots, *Humanae Vitae* entziklika entzutetsua, Küng-en arabera itzelezko errakuntza izateaz gain sektore integristei egindako amore-emate esplikaezina, une

horretan kristau-herri osoa ezezik, apaizek eta apezpiku gehienek beste zerbaite espero eta desio zutelako argi eta garbi. Okerragoa dena, debeku hori 1968ko uztailean argitaratu zen, hots, *68ko maiatza* ospetsua mundu osoan bere gailurrean zegoen unean. Absurdua. Hortik aurrera, Elizaren maldan beheraren konstatazioa, ez besterik: apaiz ugarien abandonoak, elizen eta seminarioen hustutzea, eta abar.

Liburuaren forma kontuan izanik, KÜng-en beraren bizitzaren haria da liburuaren ardatza: Tübingen-eko unibertsitatean 68ko bueltan izandako istilu latzak, Ratzinger (hango irakasle orduan) erabat zurtuta utzi zutenak, baina KÜng bera ez zutenak askorik kikildu edo bere iritzietan aldarazi, munduan zehar egindako hitzaldi-sorta arrakastatsuen kronikak, European, Errusian, Amerikan, Australian, Txinan... bere ustez Elizari zerbitzu ezin hobek eskainiz. Orobat, zenbait liburu arrakastatsu argitaratzea. Baina, nonbait, hierarkia erromatarrak deliberatua zuen berrikuntzari bidea moztea ahots gogaikarri hori, eta beste batzuk, isilduz: gure teologoak behin eta berriro arazoak ditu Erromako agintariekin (*Inkizizioa*). Kontakizunaren zatirik handiena problema horren kronika eta deskribapen zehatza eskaintzera dedikatzen dio: pertsonaiak, gertakariak, argudioak, dokumentuak, datak... dena dena zehaztasun osoz kontatua. Azken emaitza liburuaren azken kapituluaren kontatzen zaigu: Joan Paulo II.a Aita Santu izendatzen den unetik, haizea aldatzen da eta Paulo VI.aren garaian progresista eta kontserbadoreen artean izandako nolabaiteko oreka hura (oreka galgarria KÜng-en aburuz, baina alderdi onak ere bazituena) guztiz alderdi erreakzionarioaren aldera makurtzen da; adibidez, KÜng-i berari teolo-

go katoliko gisa irakasteko baimena erretiratzen diote eta, istilu latzen artean, ozta-ozta lortzen du Tübingen-eko unibertsitatean duen lanpostuari eustea, hori bai, Teologiako fakultateetik egotzia izan ondoren.

Ez da erreseina labor hau lekurik egokiena istilu horien guztien berri zehatza emateko, irakurle interesatuak liburuan bertan aurkituko baititu detaile osoz jasoak, baina bai balorazio kritiko bat egiteko. KÜng zenbait plano desberdinetan mugitzen da; batetik, eta dagoeneko esan dugun gisan, narra-tzaile gisa gure teologoa maisu bat da: argia, zehatza, amenoa, aberatsa eta irakurterraza; bestetik, bere bizitzari dagokionez, kuadro bizia eta koloretsua pintatzen digu, protagonistek izandako gorabeherak eta eboluzioa argi eta modu konbentzigarrian marraztuz, hori bai, beharrezkoa litzatekeelarik ere *besteen* iritzia ezagutzea (berezi KÜng-ena) juzgu orokor bat eman aurretik; baina hirugarrenik, Elizaren gainbeherari buruz ematen duen azalpena ez da inor asebetetze-ko modukoa: garbi dago, nire uste apalean, Paulo VI.aren ausardia faltak guztiz baldintzatu zuela Elizaren modernizazio eta *eguneratzea*, neurri handi batean karikatura bat bihurtu arte, baina, nire uste apalean berriro, ez dago batere garbi progresisten programa maximoa beteta ere gaur egungo egoera oso-oso desberdina izango zenetz, askoz ere progresistagoak diren eliza protestante zenbait (anglikanoak, adibidez) ez baitabilta, dirudienez, askoz ere hobeto.

Eranskin gisa esan dezadan kristauren joera eta jokaera politikoari buruz han eta hemen eskaintzen dituen ohar eta orientabideak guztiz interesgarriak begitandu zaizkidala, bai Europari dagokionez (eta euskaldunok

europarrak gara) bai Hego Amerikako (*Askapenaren Teologia*) kristauei dagokienez.

Laburbilduz, liburu interesgarri eta guztiz gomendagarria edozein euskaldunentzat, gure historia hurbila hobeto ulertzeko giltza ugari eskaintzen dituen, defenditzen dituen tesi nagusiekin bat etorri zein ez etorri. Dударik gabe, K ng Europako intelektual garaikide interesgarrienetako bat da eta biziki ondo idazten du. Eta bere burua fededuntzat eta, areago, katolikotzat aitortzen duen bakarrenetakoa. *Rara avis*.

Pruden Gartzia